

**EUSKADIKO HERRI
KIROL FEDERAZIOKO
LIZENTZIEN ARATUTEGIA**



**F. VASCA DE JUEGOS
Y DEPORTES VASCOS**

1. ARTIKULUA

EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA federazio-lizentziak izapidetzeko eta emateko, estatutuetan, erregelamendu honetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoari jarraituko zaio.

2. ARTIKULUA

1.- Federazio-lizentzia pertsonala eta besterenezina da, titularra EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOKO kidea da, eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitzen du, lehiaketa horiek kasu bakoitzean arautzen dituzten arauekin bat etorritik.

2.- Federazio-lizentzia bakarra izango da, eta titularra EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOARI eta dagokion lurralde-federazioa.

3.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAK emandako lizentziek gaituko dituzte titularrak goragoko mailako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, dagokion araudiak ezartzen dituen kasu eta baldintzetan.

3. ARTIKULUA

1.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA da erakunde bakarra

Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-modalitateei dagozkien federazio-lizentzia guztiak emateko eskumena du.

2.- Lurralde-federazioak dira federazio-lizentzia horiek izapidetzeko eskumena duten erakundeak, eta, horretarako, eginkizun hauek izango dituzte:

a) Federatu nahi dutenei federazio-lizentzien baldintzei eta ondorioei buruzko informazioa ematea.

b) Federazioko afiliatiorako behar diren dokumentuak eta datuak biltzea.

c) Lizentzien zenbateko osoa kobratzea eta zenbateko hori EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOARI ikidatzea, arautegi honetan ezarrita dago.

3.- Lurralde-federazioei dagozkien federazio-lizentzien izapideak 15 egun naturaleko gehieneko epean amaitu beharko dira, eskaera behar bezala formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Izapidetutako lizentziak bidaltzearekin batera, lurralde-federazioek EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOARI ordaindu beharko dizkiote horiei dagozkien kuoten likidazioak, likidazioa beste prozedura baten bidez erabakitzen ez bada.

4.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAK dagozkion federazio-lizentziak ematea edo ukatzea, gehienez ere hilabeteko epean, behar bezala formalizatutako eskaera egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5.- Interesdunak federazio-lizentzia emateko eskatzen badu, EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAK ez badu berariaz jakinarazten lizentzia hori eman edo ukatu egin zaiola aurreko apartatuan ezarritako epean, eman egin duela ulertuko da.

6.- Federazio-lizentzia ukatzeko arrazoiak azaldu beharko dira beti.

7.- Federazio-lizentzia izapidetzea edo ematea berariaz ukatzearen aurka, edo frogagiria entregatzea ukatzearen aurka, errekurtoa jarri ahal izango da kirol-arloan eskumena duen zuzendaritzan, dago-kion foru-aldundian edo Eusko Jaurlaritzan, zazpi egun naturaleko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legean gora jotzeko errekurtsorako ezarritako araubidearen arabera.

4. ARTIKULUA

Federazio-lizentzia ematea arautua izango da, eta ezin izango da ukatu eskatzaileak lizentzia lortzeko behar diren baldintzak betetzen baditu.

5. ARTIKULUA

EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOKO estamentuetako kideek, gutxienez, federazio-lizentziaren titulartasunetik eratorritako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Federazio-organoetan ordezkaritza izatea eta organo horietan parte hartzea, aplikatze-koa den araudiak ezarritako moduan, baldintzetan eta proportzioan.
- b) EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAK antolatzen dituen jarduera guztietan parte hartzea, jarduera horiek arautzeko ezartzen diren arauen arabera.
- c) EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOARI eta dagokion lurralde-federazioari buruz eskatzen duten informazio guztia jasotzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- d) Federazioaren arauak bete daitezela eskatzeko, federazioko organo eskudunetara jotzea.
- e) Egoki iritzitako kontsultak eta erreklamazioak egitea, EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN arauen arabera.
- f) Federazio-lizentziaren egiaztatzea

6. ARTIKULUA

Federazio-estamentuetako kideek, EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN estatutuetan eta arautegietan ezarritakoez gain, betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Ezartzen diren kuotak ordaintzea.
- b) Federazioko organoek balioz hartutako erabaki guztiak betetzea, organo eskudunak deuseztatzen edo eteten ez dituen bitartean.
- c) EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN helburuak eta dagokion lurralde-federazioa.
- d) Betetzen dituzten karguei datxekien betebeharrak leialki betetzea.
- e) Euskal selekzioek eta lurralde-selekzioek kirol-lehiaketetan parte hartzeko edo horiek

prestatzeko egiten dituzten deialdietara joatea.

7. ARTIKULUA

- 1.- Federazio-lizentzia urtebetekoa izango da, eta kirol-denboraldi baterako izango da.
- 2.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN Batzar Nagusiak, hala badagokio, kirol-denboraldi bat baino iraupen laburragoko federazio-lizentzien modalitateak ezarri ahal izango ditu, baina, kasu horretan, ez die hauteskunde-eskubiderik emango titularrei.

8. ARTIKULUA

- 1.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN Batzar Nagusiak ezarriko ditu federazio-lizentzien kategoriak, eta parte hartzeko eskubidea emango duten lehiaketa ofizialak arautuko ditu, hurrenez hurren.
- 2.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN barruan, gutxienez, honako lizentzia hauek egongo dira:
 - a) Kluben lizentzia
 - b) Kirolarien lizentzia
 - c) Teknikarientzako lizentzia
 - d) Epailearen lizentzia

9. ARTIKULUA

LKlubek baldintza hauek bete beharko dituzte lizentzia lortzeko:

- a) Beren araudiaren arabera dagokien kirol-erakundeen erregistroan inskribatuta egotea.
- b) Gutxienez kirolari federatu bat izatea.

10. ARTIKULUA

- 1.- Kirolarien lizentziak jasoko du zein kategoriatakoak diren, adinaren arabera eta lehiaketaren araudian aurreikusitakoaren arabera.
- 2.- Kirolariek gainditu egin beharko dituzte unean-unean indarrean dagoen legeriaren arabera araudiz beharrezkoak diren kontrol medikoak.

11. ARTIKULUA

1.- Federazio-lizentzia lortu nahi duten teknikariek honako baldintza hau bete beharko dute:

a) Arautegiaren arabera dagokion erregistro publikoan edo errolda pribatuan inskribatuta egotea, Herri Kirolen diziplinan.

2.- a) puntua egiaztatzeko, inskripzio-egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

12. ARTIKULUA

1.- Federazio-lizentzia lortu nahi duten epaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAK edo dagokion lurralde-federazioak une bakoitzean aurreikusitako gaikuntza teknikoa gainditzea.

b) Kirol-ezagutza teknikoak eta praktika- eta kirol-ezagutzak eguneratuta edukitzea.

c) Sexu-aurrekari penalen ziurtagiria urtero bidaltzea.

13. ARTIKULUA

1.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN batzarra, urtero, federazio-lizentziak izapidetu eta emateagatik ordaindu beharko diren kuotak zehaztuko ditu.

2.- Federazio-lizentzien kuotak honako kontzeptu hauek osatuko dituzte, eta lizentziaren agirian banakatuta jaso beharko dira:

a) Osasun-laguntzako nahitaezko aseguruaren kuota, titularraren osasunerako arriskuak, erantzukizun zibila eta heriotzagatiko eta galera anatomiko eta funtzionalengatiko kalte-ordainak estaltzen dituenak.

b) Euskal kirol-federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.

c) Lurraldeko kirol-federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.

d) Lurralde-eremu zabalagoko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala badagokio.

3.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA eta federazioak Lurraldeka banatuko dute lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia, EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN Batzar Nagusiak onartutako baldintzetan. Zenbateko garbi hori kalkulatzeko, zenbateko gordinari aurreko apartatuko a) eta d) letretan ezarritako zenbatekoak kenduko zaizkio. Lurralde federazioek edo euskal federazioek jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz izango lehen aipatutako zenbateko garbiaren % 35 baino txikiagoa.

4.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA eta federazioak Lurralde-federazioek borondatezko kuota gehigarri bat jaso ahal izango dute beren federatuengandik, federazio horien zerbitzuak eta jarduerak finantzatzeko, baina, kasu horretan, lurralde-federazioek ezin izango dute lizentzien izapidetzea kargatu artikulu honetan aurreikusitakoez bestelako kuotekin.

14. ARTIKULUA

1.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA bakarra izango da. Nahitaezko arrisku-estaldurak bermatuko dituzten aseguru kolektiboak kontratatzeke eskumena.

2.- Aseguru kolektibo horiek urtero kontratatuko dira, eta kirol-denboraldi osorako izango dira.

3.- Pertsona fisikoaren federazio-lizentzia bakoitzak aseguru bat edo batzuk izango ditu, gutxienez arrisku hauen estaldura bermatzeko:

a) Erantzukizun zibila.

b) Galera anatomiko edo funtzionalengatiko edo heriotzagatiko kalte-ordaina. Aseguru horren estaldurak, gutxienez, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoak izango dira (849/1993 Errege Dekretua, Estatuko lehiaketa federatuetarako nahitaezko kirol-aseguruaren gutxieneko prestazioak zehazten dituen).

c) Osasun-sistema publikoaren doako estaldurarik ez dagoen kasu eta eremuetarako osasun-laguntza, titularrak kontingentziak beste aseguru baten bidez estalita ez dituen. Aseguru horren estaldurak, gutxienez, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoak izango dira (849/1993 Errege Dekretua, Estatuko lehiaketa federatuetarako nahitaezko kirol-aseguruaren gutxieneko prestazioak zehazten dituen).

4.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAK aurreko apartatuen arabera kontratatutako nahitaezko aseguruaren estaldurak berdinak izango dira pertsona fisikoen federazio-lizentzia guztietarako, kasu bakoitzean dagokion lurralde-federazioaren bereizketarik gabe.

5.- EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA, kirol-denboraldia: Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari bidaliko dio, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, hitzartutako polizen zerrenda eta horien baldintzen kopia, bermatutako estaldura eta prestazioak zehaztuta.

15. ARTIKULUA

1.- Federazio-lizentziaren agiria elebiduna izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak berdin erabiliko dira.

2.- Federazio-lizentziaren dokumentuaren edukia honako hau izango da:

a) EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA federazio igoerle gisa identifikatzea.

b) Lizentzia izapidetu duen lurralde-federazioaren identifikazioa.

c) Lizentziaren urtebeteko iraupena.

d) Pertsona edo klub titularraren izen-abizenak.

e) Pertsona fisiko titularraren jaioteguna.

f) Pertsona fisiko titularraren kluba.

g) Pertsona fisiko titularraren kategoria eta estamentua.

h) EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOKO lehendakariaren edo hark berariaz es-

kuordetutako pertsonaren sinadura.

- i) EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN zigilua.
- j) Osasun-laguntzako nahitaezko aseguruen, heriotzagatiko kalte-ordainen eta galera anatomiko eta funtzionalen eta erantzukizun zibileko aseguruen kuota.
- k) EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.
- l) Lurralde-federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzeko kuota.
- m) Lurralde-eremu zabalagoko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko kuota, hala badagokio.

16. ARTIKULUA

Pertsona berak honako hauek egin ahal izango ditu:

- a) Estamentu desberdinetan federazio-lizentzia izatea.
- b) Hainbat kirol-diziplinatarako federazio-lizentziak izatea.

Pertsona fisiko edo klub batek ezin izango du lurralde historiko batean baino gehiagotan federazio-lizentzia eduki.

17. ARTIKULUA

EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOAREN Batzar Nagusiak erabakiko du federazio-lizentzia lortzeko gaitasun-azterketa medikoa egiaztatu behar den ala ez, indarrean dagoen araudiaren arabera.

SECRETARÍA

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large, stylized 'B' followed by a horizontal line.

Julen Beaskoa Gabika-Aldekoa

14923044X

VºBº del PRESIDENTE.

A handwritten signature in blue ink, featuring a circular stamp of the Euskadiko Herri Kirol Federakundea and several horizontal lines.

Igor Duñabeitia Alacano

30656063F

**F. VASCA DE JUEGOS
Y DEPORTES VASCOS**



**EUSKADIKO HERRI
KIROL FEDERAKUNDEA**